

**NOR GARA GU? ZER GARA GU?
BIZIAN GORA GARA GU.
NOR GARA GU? ZER GARA GU?
BIZIAN GORA GU.**

1

Badira gaurko munduan
gauz onak zaharrentzako (2)
Ez da, ez,
hobeagorik ez da, ez (2)
hobeagorik **EZ!**
Bizian Gora baino.

2

Edadetua izan ta
gainera fededuna (2)
Hau bai hau,
holakoentzat hau bai hau (2)
holakoentzat **BAI!**
Hau zorientasuna!

3

Lehenengo lortzen doguna
adiskidetasuna (2)
Ez da, ez,
haundi-txikirik ez da, ez (2)
haundi-txikirik **EZ!**
Hau da anaitasuna!

4

Fede-bizitza gaurkotzen
zelango ahaleginak (2)
Hau bai hau,
Jainkoa lagun, hau bai hau! (2)
Jainkoa lagun **BAI!**
Zer poz ta atseginak!

5

Guk pozik bizi doguna
besteei emon nahia (2)
Ez da, ez,
geuk gordeteko ez da, ez (2)
geuk gordeteko **EZ!**
hartu dogun dohaia.

6

Herrenak dabiltz ibiltzen
ta itsuak ikusten (2)
Hau bai hau,
hau miraria, hau bai hau (2)
hau miraria **BAI!**
zaharrak gazte sentitzen.

7

Bakarrik bizi nintzana
gaur ditut mila lagun (2)
Ez da, ez
Lagunarterik ez da, ez (2)
Lagunarterik **EZ!**
hau baino_hoberik inun!

8

Aberastu zaitez, lagun
Jaunaren aurrerako (2)
Hau bai hau,
altxor ederra, hau bai hau (2)
altxor ederra **BAI!**
eta dana zeutzako.

9

Kristau lez jubilatzea
ez da, ez, lotarako (2)
Ez da, ez,
beste txandarik ez da, ez (2)
beste txandarik **EZ!**
Ez itzi gerorako!

10

Ondo amaitzeak dakar
irabazle koroia (2)
Hau bai hau,
aukera ona hau bai hau (2)
aukera ona **BAI!**
Txapeldun izateko!

A. Martzel